

Argi Perurena

Herri Urratseko koordinatzailea

Ametsetik errealitatera

Ikastolen ibilbidea gogorra izan da. Urte luzez inolako onarpen ofizialik gabe, ikastolako buraso, irakasle eta ikasleek gogorki borrokatu behar izan dute dauden heinera iristeko.

Hainbat traba izanik ere Seaskak beti egin du aitzina, euskal haurren euskalduntzea eta heziketari so egirik. Administrazioarekin lortu-tako lehen kontratua 1983ko urriaren 14an izenpetua izan zelarik hastapen bat bertzerik ez zen izan eta euskarazko irakaskuntzaren ezagupena urrun zegoen oraino. 1993an, berriz, Hezkunde Nazionalarekin izenpeturiko azken akordioarekin urrats garrantzitsua eman zen, akordio honen bidez irakaskuntza sarea erakunde publikoaren eta administrazioaren gain gelditu baita. Konkretuki, Estatuak bere gain hartu du irakaskuntza (irakaslegoa) eta departamendu, eskualde eta udalerriek beren gain hartzen dituzte ikastolaren funtzionamendu gastuak (irakasleak diren langilegoa, material pedagogikoa, etxearren mantenu gastuak,...). Baina akordio hau oraino praktikan baino, teoriarik solilik gauzatzen da.

Ikastola ezagutua izateak ikasleari estatus berrira eman dio: behingoz ikaslea ikasletzat hartua izan da. Honek erran nahi du, ikaslearen eskola-liburua kontuan hartua izan dela azterketak pasatzera-koan. Emeki-emeki eta urratsez urrats, eskola guztiak (ikastola barne) tratamendu berdina lortzearen bidean aurreratzen gara.

Baina maluroski, akordio honek ez ditu Seaskaren arazo guztiak konpondu: — Administrazioak ez du Seaskaren berezko egitura baten beharra ikusten eta ondorioz ematen duen laguntza ekonomikoa arrunt tipia da. Seaskak bere gain hartu behar ditu, beraz, zerbitzu pedagogikoen eta administrazioaren kudeaketa osoa.

Ipar Euskal Herrian ikastetxeen eraikuntza administrazio lokalaren gain da. Horrek erran nahi du administrazio lokalaren betebeharra dela ikastetxei beharrezkoak dituzten lokalak ematea. Ildo honetan aurrerapausoak ematen badira ere, ikas-tolek arazo larriak, oztopoak izaten dituzte beren lokalak ukaiteko: Kanboko bigarren maila administrazioaren diru-laguntzarik gabe eraiki da. Barnealdeko ikastolek (Baxenafarroa eta Zuberoa) arazo handiak dituzte Herriko Etxetatik beharrezkoak dituzten lokalak ukaiteko, eta egun segurtasun eta

Administrazioak ez du Seaskaren berezko egitura baten beharra ikusten eta ondorioz ematen duen laguntza ekonomikoa arrunt tipia da. Seaskak bere gain hartu behar ditu beraz zerbitzu pedagogiko eta administrazioaren kudeaketa osoa

funtzionalitate arazo sakonak dituzte.

— Ipar Euskal Herrian euskarak ez du estatutu ofizialik. Ondorioz hamabost urte luzez dena euskaraz ikasi ondoan, baxoa frantsesez pasatzera beharturik dira ikasleak. Euskararen ezagutza erdies-tea dugu hurrengo helburua. Hone-lak ikastolek eta euskarak gar-tzeko ingurunea lagun izan be-harra dute eguneroko bizitzan. Horrek administrazioaren euskal-duntzea eta bizi publiko osoaren euskalduntzea galdegiten du.

Euskal herri eskola izateko bi-dean, beraz, badago zeri ekin. Herri Urratsek urte urte bere harria ezarri du eraikitzen ari garen Euskal Herri euskalduneari.

1969an bost ikaslek Ipar Euskal Herriko lehen ikastola osatu zu-

tenetik herri sustengua urte urte bere nahia gau-zatuz joan da. Hastapenean ametsa zena, egun ametsa baino gehiago da, errealite bilakatu baita, egun 1.500 ikasletik gora eskolaratuz urtero.

Baina Lapurdi, Baxenafarroa eta Zuberoako ikas-leen % 15 baldin badira euskaraz ikasteko aukera dutenak, eskaintza tipi honen aitzinean eskaria amitez handiagoa da. Botere publikoek eskari hori estaltzeko agertzen duten nahi ahularen aitzinean, euskaldunon lanak geroz eta indartsuago izan be-harra du. Aitzineko urteetan bezala aurten ere, Ipar zein Hegoaldeko euskaldun orok, elkartasunez, izanen dugu euskararen bizitza laguntzeko parada.

Hala ere azken urteetan egin dugun gisan, eus-kararen aldeko elkartasun eta sustengua eguna festa eguna izan da aurten ere, hain ongi egiten daki-gun bezala. Hamahirugarren Herri Urratsek pre-stakitzun bereziak antolatu ditu zazpi probintzietatik eta urrunagotik ere etorri hori diren jendei harrera ahalik eta hobereana egiteko.

Ibilbidearen handitzearekin batera, zazpigarren area ireki dugu aurten. Sagardotegi, sardina erre-tegi, talotegi eta zikiroak berriz ere gure berezita-suna agerian utziko dute. Tükientzako jokoak, dantza eta herri kirolak, fusikaz blai egindako la-kuaren inguruak bertze egun ahanzetezina izanen du. Gaurdanik Sararat abiatuko direnek, berriz, plazan berean izanen dute goxagarria. Gainera, bertan lo egin nahi izanez gero kanpin-dentzatzako gunea instalatua dugu aurten.

Besterik gabe, bakoitzak berea eman dezala festa handi honetan, eta guztiok geure umorea. ■

Txillardegia



V. Urteurrena

Aurki ospatuko, bai, bostgarren urteu-rrena. Datorren hilaren 25an, preseski. Baina prentsak eta media ofizialek iz-kutatu egingo dute.

1991ko ekainaren 25an Esloveniako Parla-mentuak Burujabetza aldarrikatu zuen, eta Re-publika Slovenija delakoa sortu. Geroztikako bost urte honetan, esloveniarrak herri askatua dira.

Baina prentsak ez du hau aipatuko. Esloveniar hiletarik eta sarraskirik gertatzen ez denez gero, isilik. Prentsak Bosnia eta Txetxenia nahiago. Noski!

Esloveniak: 2.030.000 biztanle, 20.251 km. karratu. Euskal Herriaren ahizpa bizkia izan li-teke.

Askatasuna aldarrikatu ondoren, aurka egin zuen Belgradok, eta astebetez inkontru militarra mamitu zen. Esloveniarrak 2.536 preso harrapa-tu zituzten, 274 soldadu federal zauritu, eta 47 hil. Odol isurketa egon zen, bai, eta zoritxarrez. Baina besterik egon da, irakurleak dakienez, Bosnia-Hertzegovina Errepublikan...

Behin bakarrik izan naiz Eslovenian: Maribor-en, Eslovenia Askatu berrian. Eskualde ederra, Austria eta Italiarekiko lehen auzoa; eta kultur maila handikoa. Bekalaitz etxera nintzen.

Herri txiki eta zoriontsu horietako bat: Islandia edo Dinamarkaren tankerakoa. Miresgarria, Mil-an Kunderaren uestez.

Eslovenian abertzaleak nagusitu dira, Eslove-nia Askatua sortu da gure begien aurrean.

Nori zaio gaitzi? Austria-Hungariako hiletariak ez beste inori.

Horra hor nazio-normaltasuna garaile.

Ramon Labaien



Orain zer?

Kokatu zaigu azkenean Aznar Jauna Moncloako jauregian. Izerdiz lortu duen zerbat benetan, eta behin hor, zer? Oraingo behintzat, ez du konfidantza askorik ematen gizonak, galdua bezala ikusten den neurrian. Egunak joan eta egunak etorri eta az-ken urte honetan botatzen zituen orokortasunak errepikatuko besterik ez digu egin D. Jose Mariak. Ez dirudi PPKo horiek Gobernu Egitasmo ongi mamiturik zutenik. Gehiago absolutu baten itzaropenean joan balira bezala hauteskundea-tara, geroko utziz arazoan mamitzea. Emaizak ordea, nolabait, hankaz gora utzi dituzte, horra nondik, Pujok Jauna Gobernu berriaren Izpiritu Saindu bihurtuz Bartzelonako goienetik jaitisiko zaien aboza. Diru kontuetan, noiz eta nola eginen diren gauzak, arinduko duen aboza. Diruaren hotsa izanen baita, behin eta berriro nagusi, ez-tabaida gehienetan. Estatuak pobreak eta Es-tatuak aberatsak, eta hemendik aurrera Estatu berriaren hara: noua babituran diruetan, gaitasun baten eskakizuna. Bestela. CiUko batek zioen bezala, Estatuak bideragarri bihurtzeko, erremedio bakarra Andaluzia eta Extremadurari independentzia inposatzea izanen litzateke. Depenatit ikusiko giro nahastu honetan. Besteak beste, oraingo, dudagarri delako Aznar jauna gauza izanen den okerrak zuzentzeko.

L A P H I T Z A

